

Interes-gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko Foru Araua



Erraz irakurtzeko edizioa

Koordinazioa: Bizkaiko Foru Aldundia. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila.

Modernizazio, Gobernamendu On eta Gardentasunerako Kabinetea

Irakurketa errazerako egokitzapena:

Blanca Mata (Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza)

Diseinua eta ilustrazioak: Mercedes Corretge



Logotipo honek identifikatzen ditu IFLAk (International Federation of Library Associations and Institutions) eta Inclusion Europe-k irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen zuzendutako materialentzat ezarritako nazioarteko gidalerroak jarraitzen dituzten materialak. Agiri hau Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza-k berrikusi du, eta berak abalaten du.

Lehenengo edizioa: 2019ko martxoa

© Bizkaiko Foru Aldundia-Diputación Foral de Bizkaia
www.bizkaia.eus

© Ilustrazioenak: M.Corretge

Lege-gordailua: BI-397-2019

Interes-gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko Foru Araua



Erraz irakurtzeko edizioa

Aurkibidea

EZAGUTU BEHARREKO TERMINOAK 6


SARRERA 7

- Interes-gatazkak eta bateraezintasunak: zergatik da arau hau garrantzitsua?
- Zeintzuk dira arauaren xedeak?
- Nortzuek bete behar dute araua?



ETIKARI ETA GOBERNU ONARI BURUZKO PRINTZIPIOAK 11

- Zer dira etikari eta Gobernu Onari buruzko Printzipioak?
- Zer Printzipio etiko bete behar ditu Foru goi-kargudun batek?
- Zeintzuk dira Foru goi-kargudun batek Gobernu Onaren inguruan bete beharreko Printzipioak?
- Zeintzuk dira herritarrekiko harremanen inguruan bete beharreko Printzipioak?
- Printzipio horiek betetzeko tresnak.



INTERES GATAZKAK 14

- Noiz gertatzen dira interes-gatazkak?
- Zeintzuk dira interes-gatazka motak?
- Zer egin behar du Foru goi-kargudun batek interes-gatazkak saihesteko?
- Interes-gatazka potentzialak prebenitzeko eta detektatzeko alerta-sistema.



FORU GOI KARGUDUNEK BETE BEHARREKO IRIZPIDEAK ETA BALDINTZAK 20


- Zuzendari Nagusia.
- Foru goi-kargudunak.



BERME-ORGANOAK ETA -TRESNAK 24



- Bateragarritasunaren aitorpena.
- Jardueren aitorpena.
- Ondasun eta interesen aitorpena.
- Berme Organoa.



BETETZE BERMEAK 29

- Arau-haustek eta zehapenak.



Ezagutu beharreko terminoak

Foru goi-karguduna: Foru Aldundiko eta Foru erakunde publikoetako goi-zuzendaritzan diharduten pertsonak (diputatuak, zuzendariak, kudeatzaileak...).

Pertsona-multzo horrek Arau hori bete behar du.

Gobernu ona: Foru goi-kargudunen jarduerak zuzendu behar dituzten printzipioak, balioak, arauak eta jardunbide egokiak, administrazioak gardentasun eta etika publikoz jokatzeko, bai eta herritarren ongizatea bermatzeko ere.

Bateragarritasuna/Bateraezintasuna: Beste lanbide-jarduera publiko edo pribaturen bat eta erakundearentzat egiten den jarduera garatzeko edo ez garatzeko ahalmena.

Interes-gatazkak: Foru goi-kargudun batek hartutako erabakiek edo egindako jarduerak hari edo hirugarren pertsoneri eta ez interes orokorrari mesede egingo dietenari dagokion egoera.



Sarrera

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2015-2019 Gobernu Planak Aldundia administrazio modernoa, erantzulea eta herritarrengandik gertua izateko konpromisoa ezarri zuen.

Planaren xede nagusiak gardentasuna, gobernu ona eta gobernu irekia dira.

2016an, gardentasunari buruzko Foru Araua onartu zen.

2018an, interes-gatazkei eta bateraezintasunei buruzko Foru Arauak Foru Aldundiko goi-kargudunek haien funtzioak modu eredugarrian eta interes orokorrari erantzuteko moduan beteko dituztela bermatzeko tresnak ezarri zituen.

Dokumentu hau Bizkaiko Batzar Nagusiek onartutako interes-gatazkei eta bateraezintasunei buruzko Foru Arauaren erraz irakurtzeko moduko bertsioa da. Indarrean sartu zen 2019ko urtarrilaren 1ean.

Arau hau oinarrizkoa da Bizkaiko Foru Aldundiak gobernu ona bermatzeko eta interes-gatazkek saihesteko.

Araua egokitu egin da herritar guztiak erraz irakurri dezaten.

- **Interes-gatazkek eta bateraezintasunak.**
Zergatik da garrantzitsua arau hau?




Bizkaiko Foru Aldundiak aurrerapausoak eman nahi ditu gobernu onari buruzko tresnak eratzeari dagokionez, besteak beste: gardentasuna, parte-hartzea, kontuak ematea eta Aldundiak herritarrekin duen harremana.

Helburu hori betetze aldera, Aldundiak Foru goi-kargudunei zuzendutako interes-gatazkei eta bateraezintasunei buruzko arau hau onartu du.

1987an erakundearen antolamenduari buruzko 3/87 Foru Arauaren bitartez proposatutako BFAREN lan-ildoak gaurkotu eta egokitu du arau honek.



Gainera, arau berri honek erronka bat dakar, alegia: tresnak ezarri ditu sortu litezkeen interes-gatazkak eta bateraezintasunak saihesteko eta horiek sortzen direnean denboraz detektatzeko.



Erakundeentzat

Erakundeek gobernu onari buruzko printzipioei jarraitzen dietenean, erakunde horietan dihardutenak adituak dira, eta egiaztatu ditzaketen ezagutzak eta esperientzia dute.


Beren lanean, jardunbide etikoa eta eredugarria dutela erakutsi behar dute.

Gainera, tresna berri horrek honako hau ahalbidetzen du:

- interes-gatazkak edo bateraezintasunak denboraz detektatzea.
- Foru goi-kargudunari jakinaraztea zer prozedurari jarraitu behar zaion horrelako egoeraren batean.
- tresna egokiak ezartzea horrelako egoerak detektatzeko eta prebenitzeko.

Arau honi esker, Foru goi-kargudunak objektiboak dira, eta haien lanari dedikazioa eskainiko dietela bermatzen du, betiere interes orokorraren eta herritarren ongizatearen arabera.

Horrek guztiak erakundearen irudia babestea ahalbidetzen du.



Herritarrentzat

Erakundeek Foru goi-kargudunen interes-gatazkak eta bateraezintasuna prebenitzean eta detektatzean, herritarrek konfiantza handiagoa dute erakundeekiko eta hango adituekiko.

Halaber, arau honek herritarrak seguruago senti daitezen laguntzen du. Izan ere:

- interes publikoak lehentasuna dira pertsonen kargu publikoaren aribidean.
- Foru goi-kargudunak gizarterako erreferenteak izango direla bermatzen du.



• Zeintzuk dira arauaren xedek?


1. Bizkaiko Foru Aldundian gobernu ona bermatzea eta Foru goi-kargudunei etikari, gobernu onari eta herritarrekiko harremanari buruzko printzipioak ematea, betiere haien jokabideak eta jarduerak helburu horretara egokitze aldera.
2. Interes-gatazkak karguaren aurretik, ondotik eta karguan zehar prebenitzeko, identifikatzeko eta konpontzeko tresnak arautzea eta ezartzeao.
3. Foru kargu publikoaren estatutua zehaztea, bai karguak izendatzeko orduan, bai karguaren bateragarritasun eta bateraezintasunei dagokienez.
4. Arau honek dioena beteko dela bermatzeko zehapenen sistema bat garatzea.

• Nortzuek bete behar dute arau hau?



Bizkaiko Foru Aldundiko Foru goi-kargudun guztiek:

- Diputatu Nagusiak
- Foru diputatuek
- Foru Administrazioaren zuzendari nagusiek
- Foru Administrazioaren menpeko erakunde publiko enpresarialetako zuzendari nagusiek.



Foru goi-kargudunen katalogoa

Aldundiak Foru Dekretu bat onartu behar du, Foru goi-kargudunen katalogo batekin, arau hau indarrean sartu eta hiru hilabeteko epean.

Katalogoan, gutxienez, honako datu hauek jasoko dira:

- Pertsonaren izena eta abizenak.
- Lan egiten duen sailaren izena.



Katalogoa Bizkaiko Foru Aldundiko gardentasun atarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Berme Organoak katalogoa kudeatu eta gaurkotuko du. Foru sailek, erakunde autonomoek eta erakunde publikoek edozein Foru goi-kargudunen inguruan gertatu litezkeen aldaketa guztien berri emango diote berme organoari.



Etikari eta gobernu onari buruzko printzipioak





- **Zer dira etikari eta gobernu onari buruzko printzipioak?**

Foru goi-kargudun batek bere lana eta bere erantzukizuna garatzeko orduan jardun behar duen modua da.

- **Zer printzipio etiko bete behar ditu Foru goi-kargudun batek?**

Eredugarritasuna: Modu eredugarrian jardungo du, herritarrek erakundeekiko konfiantza izan dezaten lortzeko eta erakundean lan egiten dutenentzat erreferentea izateko.

Integritatea: Irmoki lan egingo du jarduera guztiak egitean, eta zerbitzu publikoaren, gardentasunaren eta legezotasunaren printzipioari erantzungo dio.

Inpartzialtasuna: Modu independentean jardungo du, interes partikularrik gabe.

Objektibotasuna: Modu inpartzialean eta bidezkoan hartuko ditu erabakiak, eta interes orokorra errespetatuko du.

Erantzukizuna: Erantzukizunez hartuko ditu erabakiak, baita jardun ere.

Onestasuna eta interesa: Interes publikoarekin eta, orokorrean, Bizkaiko herritarren interes orokorrenekin bat egiteko baino ez du jardungo.

Bizikidetzeta eta errespetua: Aniztasuna errespetatzen dadin eta pertsonen artean elkartzeko jardungo du; tratu adeitsua eta duina emango die pertsona horiei.

- **Zeintzuk dira Foru goi-kargudun batek gobernu onaren inguruan bete beharreko printzipioak?**

Lidergo konpartitua eta berritzailea. Honako hauei egingo die mesede jardutean:

- Beste entitate batzuekin (publiko eta pribatuekin), erakundeekin eta Bizkaiko udalerriekin parte hartzea
- errealitateari buruzko ikuspegi orokorra, eta gobernu programa garatzeko orduan ikuspegi hori ez galtzea.
- politikak eta antolaketa Bizkaiko gizartearen beharretara egokituko dira etengabe.

Gobernu irekia. Jarduera publiko guztiei buruzko informazioa eskainiko die herritarrei.



Bikaintasun profesionala. Profesionaltasun mailarik handienarekin jardungo du, eta herritarrei kalitatezko zerbitzuak eman ahal izateko hobetuko da etengabe.

Modernizatzeko kultura sustatzea. Erakundea berritzea eta aldatzearen alde egingo du, gizartearen eskaera berrietara egokitze aldera.

Eraginkortasuna baliabideak erabiltzeko orduan. Baliabide publikoak erabiliko ditu gizalegez eta modu eraginkorren.

Kudeaketa arduratsua. Kudeaketa lanak justifikatuko ditu, erabakiak arrazoituz.

Kohesio ekonomiko eta soziala eta lurralde oreka. Bizkaiko eskualdeen arteko oreka lortzeko, eskualde horiek adostasunera heltzeko eta tokiko erakundeekin elkarlanean aritzeko helburuarekin jardungo du.

- **Zeintzuk dira herritarrekiko harremanen inguruan bete beharreko printzipioak?**

Pertsona oren duintasuna errespetatzea.

Tratu egokia eta bizitza pribatuan ez sartzea.

Tratu berdina, generoa edo beste edozein ezaugarri dela-eta diskriminatu gabe.

Herritarren parte-hartzea sustatzea politika publikoak egiteko erabakiak hartzean.

Pertsona guztien **hizkuntza eskubideak bermatzea.**

Euskararen erabilera eta normalizazioa sustatuko dira, bereziki.


Kultura- eta ingurumen-ondarea babestea.

- **Printzipio horiek betetzeko tresnak**

Araua indarrean sartzea	BFAk honako hauek egingo ditu
Araua indarrean sartu eta 6 hilabete geroago	Politika publikoak planifikatzeko, ebaluatzeko eta hobetzeko tresnak
Araua indarrean sartu eta 12 hilabete geroago	Jokabideari buruzko jarraibideak




Interes gatazkak





- **Noiz gertatzen dira interes-gatazkak?**

Foru goi-kargudunek interes orokorraren alde egin beharko dute une oro. Interes-gatazkak gertatzen dira Foru goi-kargudunek, interes orokorraren alde egin beharrean, haien buruari eta hirugarren pertsonaren bati mesede egitea erabakitzen dutenean edo hori egiteko jarduten dutenean.



- **Zeintzuk dira interes-gatazka motak?**

- Foru goi-kargudun izendatua izan baino 2 urte lehenagoko egoerei lotutako gatazkak.
- Foru goi-kargudun jardun bitartean gertatutako egoerei lotutako gatazkak.
- Foru goi-kargudun izateari utzi eta 2 urte geroagoko egoerei lotutako gatazkak.



• Zer egin behar du Foru goi-kargudun batek interes-gatazkak saihesteko?


Balizko interes-gatazka baten

● Ez jokatu

● Nagusiari jakinarazi

● Berme Organoari jakinarazi

(konfidentzialtasuna mantendu behar du)

●  kasuaren jarraipena egitea eta kasua kontrolatzea (informazio- edo zehapen-espeditari hasiera ematea)


●  Bateragarritasun-txostena egin


- aurkakoa
- aldekoa

● Gatazka ez ezagutu, edo gatazkan parte ez hartu


Noiz?

en los siguientes casos:

●  laraubide juridikoaren araudian eta administrazio-prozedura erkidean jasotako kasuak

●  Bere interes propioaren alde egingo duten kasuak, bai eta honako hauenak ere:

- ezkontide edo izatezko bikotearenako
- familiartekoenak (**odolkidetasuneko edo ahaidetasuneko 4. maila**)¹
- hirugarren pertsonenak

●  enpresen, sozietateen edo erakundeen interesen alde egingo duten kasuak, betiere kargu publikoa, ezkontidea, izatezko bikotea edo familiartekoak (**2. mailakoak**)², bai eta interes berak partekatzen dituzten hirugarren pertsonak ere, zuzendaritza organoetako kideak izan badira Foru goi-kargudun izan baino bi urte lehenago.

¹ **4. mailaraino:** gurasoak, aitagarriak eta amagarriak, seme-alabak, suhiak, aitona-amonak, anai-arrebak, koinatuak, bilobak, osaba-izebak, ilobak, lehengusu-lehengusina propioak...

² **2. maila:** gurasoak, aitagarriak eta amagarriak, seme-alabak, suhiak, errainak, aitona-amonak, anai-arrebak, koinatuak, bilobak.



Parte ez hartzea: Nola?



Premiazkoa bada, **ahoz**,
(3 eguneko epean, idatziz **eginez gero**)



edo, bestela, **idatziz**

- Nori: Foru goi-kargudunaren sailaren titularrari edo Foru goi-kargudun izendatu zuen organoari
- Nori: Berme Organoari (15 eguneko epean)

Parte ez hartzeko betebeharra betetzen ez

Foru goi-kargudunaren kasuan

- Saileko titularra::
 - pertsonari entzun
 - **inhibitu**³ dadila agindu
 - berme organoari jakinarazi

Diputatu nagusia

- Foru diputatuaren kasuan:
 - Aldundiari jakinarazi
 - parte hartu ez dezan agindu

³ **Inhibitu. Parte ez hartzea.** Parte ez hartzekotan, beste batekin ordezkatu beharko da interes-gatazkaren bat dagoen alorrean diharduen pertsona.



	Zeri daude lotuta?	Noiz?	Zer ondorio dakartzate
Kargu publikoa lortu baino lehenagoko inguruabarrak direla eta	Lanbide-jarduera eta jarduera ekonomikoari	Izendapena baino 2 urte lehenago	- Jardueren aitorpena egitea - Parte ez hartzea
Karguan jardun bitartean dauden mugapen	Merkataritzako akzioen % 10 baino gehiago badute	Karguan jardun bitartean	Akzioak saldu behar dituzte 3 hilabeteko epean, edo akzio horiei uko egin, oinordekotzan hartu badira
Kargu publikoa utzitakoan dauden mugapenak	Karguan jardun bitartean harreman zuzena ⁴ duten enpresa, sozietate edo erakunde pribatuei	Kargu publikoa utzi ondoko 2 urteetan zehar	Ez ditu zerbitzurik emango, eta ez du lan-harremanik izango
	Aldez aurretik lan egin zuen eta berriro sartu nahi den enpresa pribatuei		Karguaren eskumenekin zuzeneko harremanik ez duten lanpostuetan baino ezin izango da hasi
	% 10 baino gehiagoko parte-hartzea duten enpresei		Ez dituzte zerbitzu-kontraturik edo horrelakorik egingo Aldundiarekin edo haien zerbitzua ematen duten Foru sektore publikoko enpresekin

⁴ **Harreman zuzena:** Kontsultatu arau honen bertsio originala kontzeptu horri buruzko informazio gehiago jasotzeko.



Interes-gatazkak	Zeri daude lotuta?	Noiz?	Zer ondorio dakartzate
Kargu publikoa utzitakoan dauden mugapenak	Aurreko kasuei, enpresak edo erakundeak pertsona kontratatzen badu	Kargu publikoa utzi ondoko 2 urteetan zehar	Ez dute kontraturik egingo Foru sektore publikoko enpresa edo erakundeekin
	Jarduera aldatzen bada, edo funtzionario-lanpostua berriro betetzen badu (jarduera pribaturen bat egiteko bateragarritasunarekin)		Jardueren aitorpena egin beharko du



Foru goi kargudunek bete beharreko irizpideak eta baldintzak






• Zuzendari Nagusia

Honako ezaugarri hauek aintzat hartuta egingo da izendapena:

- pertsonaren eskumenak eta esperientzia (aldez aurretik aurkeztu beharko du curriculumak, eta gardentasun atarian argitaratuko da)
- diskrezionaltasunez, lehiaketa publikorik egin gabe
- **kondenarik, gaitasungabetzerik, eteterik edo zehapenik** jaso ez duela baieztatzen duen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.



• Foru goi-kargudunak

Erabateko dedikazioa emango diote haien lanari. Ez dute beste lanposturen, karguren edo ordezkartzaren, lanbideren edo jarduera publiko nahiz pribaturen batean lan egingo, ez norbere konturako, ez inoren konturako, salbuespenak salbu.

Soldata.

- Publikoa izango da.
- Bakarra izango da. Administrazioak ez dio bat baino gehiago emango.
- Foru Aldundiko aurrekontuetan ezarritakoa izango da.
- Zerbitzu-gastuei dagozkien ordainsariak jaso ahalko ditu, eta Foru goi-karguduna zerbitzu berezietan dagoen karrerako funtzionarioa bada, antzintasunari dagozkion ordainsariak jaso ahalko ditu.

Pentsioak.

- Ez du pentsiorik jasoko, kargu publikoren batean aritzearekin legez bateragarriak direnak salbu.
- Pentsioren bat jasotzekotan, pentsio hori bertan behera geratuko da, eta automatikoki berreskuratuko da, Foru goi-kargudun izateari utzitakoan.

⁵ Kontsultatu arau honen bertsio originala kontzeptu horiei buruzko informazio gehiago jasotzeko.



Karguarekin bateragarriak diren jarduerak

	Jarduera mota	Salbuespenak
Jarduera pribatuak ⁶	Norberaren edo familiaren ondarea administratzea	Ikusi 18 eta 19. orrialdeak mugapenak irakurtzeko
	Kongresu, jardunaldi, komunikabide eta abarretan parte hartzea	
	Lan literario, artistiko edo zientifikoak merkaturatzea eta argitaratzea	Lan-harremana edo kontratua dagoenean, edo zerbitzuak emateari buruzko harremana dagoenean
	Fundazio, elkarte, gobernuz kanpoko erakunde eta abarretan ordainsaririk gabe parte hartzea	
Jarduera publikoak	Kargutik eratorritakoak, edo Batzar Nagusiek, Aldundiek, diputatu nagusiek edo Foru diputatuek agindutakoak	
	Tokiko, autonomiako, estatuko edo nazioarteko mailan ordezkariak duten aldi baterako misioak	
	BFAk ordezkariak izan behar duen kontseiluetan, organo kolejiatuetan eta erakundeetako zuzendaritza-taldeetan ordezkariak izatea	
	Ez dira ordainduko. Dietak edo laguntzak BFAko Diruzaintza Nagusian ordainduko dira	Karguan jardutetik eratorritako gastuei (joan-etorriari, eta abarrei) dagozkien kalte-ordainak jasotzeko eskubidea du

⁶ Edozein kasutan: Ez du kargu publikoaren eginbeharrak bete daitezten ekidingo; eta ez du karguan jarduteko inpartzialtasuna konprometituko, ez eta interes publikoari kalterik egingo ere.




Karguarekin bateragarriak diren jarduerak

	Jarduera mota	Salbuespenak
Hautapenezko karguak eta erakundeetan ordezkaritza duten bestelako karguak	Batzar Nagusietako kide gisa	
	Udaleko zinegotzi gisa	Karguari erabateko dedikazioa eman behar zaionean, edo lanaldi partziala denean
	Soldata bat baino ez du izango	
		Tokiko erakundeetan jarduteari dagozkien laguntza, dietak eta kalte-ordainak jasotzeko eskubidea du
Prestakuntza-jarduerak eta irakaskuntza⁷	Unibertsitateetan edo goi mailako hezkuntzako ikastetxeetan irakastea	Urtean 60 ordu gainditzen ez direnean
	Ikerketa- edo aholkularitza-jarduerak	Unibertsitateari lotuta ez daudenean, edo ordainduak badira
	Konferentziak, mintegiak, ikastetxe ofizialetako kurtsuak edo funtzionarioek prestakuntza jasotzeko programak. (Ordu horiek ez daude goi mailako irakaskuntzako 60 orduen barruan, eta ordainduko badira, BFAko Diruzaintza Nagusian ordainduko dira)	

⁷ Kontsultatu arau honen bertsio originala kontzeptu horiei buruzko informazio gehiago jasotzeko.



Berme-organoak eta -tresnak





Foru goi-kargudun jardun bitartean bateragarritasunaren aitortpena eskatzeko prozedura

Nork aurkeztu behar du?: jarduera bateragarriren bat egin nahi duen Foru goi-kargudunak.

Noiz?

- Jarduera hasi baino lehen
- Baimendutako jardueraren baten inguruabarrak aldatzean.

Nora jo behar da?

- Jarraipenaz eta kontrolaz arduratzen den berme organora
- Halaber, saileko titularrak jarduera batzuk ebatzi eta baimendu beharko ditu.

Nola ebatziko da?

- Bateragarritasun-txostena aurkakoa, aldekoa edo administrazioaren isilpena (aurkakoa) izan daiteke
- Ebazpena, gehienez ere, hilabeteko epean jakinaraziko da, eta, berme organoak hala eskatuta, epea luzatu egingo da.



Jardueren aitortpena

Nork aurkeztu behar du?: BFAko eta Foru sektore publikoko goi-kargudun guztiek.

Zer jarduera?

- Karguan zehar egindako jarduerak (ordainsariekin edo ordainsaririk gabe), izendapenaren aurreko 2 urteetan egindakoak
- karguan jardun ondoko 2 urteetan egindako jarduerak.

Noiz?

- Hasierakoa: Izendapena egin eta handik 3 hilabetera
- Amaierakoa: Jarduera amaitu edo Batzar Nagusiak desegin eta handik hilabetera.
- Kargua utzi eta hurrengo 2 urteetan jarduera aldatzean.



Nora jo behar da? Jardueren erregistrora.

Nola ebatziko da? Berme Organoak aitortpenak aztertuko ditu, eta, akatsen bat balego, akatsok zuzendu daitezzen eskatuko du.

Foru goi-kargudunak karguan jarraitzen badu, ez da jardueren aitortpena berriro egin beharko (soilik aldaketa nabarmenik balego).



Ondasunen eta interesen aitortpena

Nork aurkeztu behar du?: Foru goi-kargudun guztiek.

Zer informazio?

- Ondasunak, eskubideak eta ondareari lotutako eginbeharrak.
- Finantza-balio edo -aktibo negoziagarriak (kredituak, kontu korrontek, bonuak...)
- Sozietateetan parte hartzea (Foru goi-kargudunenak, ezkontidearekin, mendeko seme-alabekin edo tutoretzapeko pertsonekin).

Noiz?

- Hasierakoa: Izendapena egin edo lanpostuaz jabetu eta handik 3 hilabetera
- Foru goi-kargudun jardun bitartean, bai eta ondarea aldatu bada ere.
- Amaierakoa: Kargua utzi edo Batzar Nagusiak desegin eta handik hilabetera.

Non? Berme Organoari atxikitako ondasun eta interesen erregistroan.



• Berme Organoa

Zer da?

Foru Arau honek ezarritakoa zaintzeaz eta betearazteaz arduratzen da.

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko diputatuak egindako dekretu baten bidez eratuko da.
Autonomia osoa izango du jardutean.

Organo honi lotutako lana egiten duten funtzionarioen kasuan gertatzen den legez, berme organoak isilpean gorde beharko ditu bere lana dela-eta ezagutzen dituen datuak eta informazioa.

Foru Aldundiaren eta beste erakunde pribatu batzuen menpe dauden erakunde eta organoek Berme Organoarekin parte hartu beharko dute, organoak hala eskatuta. Gainerako herri-administrazioek ere parte hartu beharko du.

Zer funtzio bete behar ditu?

- Manuzko txostenak egitea, bai eta araua aplikatzeari buruzko kontsultei arreta ematea eta kontsulta horiek ebaztea ere.
- Foru goi-kargudunen interes- eta bateraezintasun-gatazkek kudeatzea: prebentzio-neurrien jarraipena egitea, bai eta neurri horiek kontrolatzea eta martxan jartzea ere.
- Foru goi-kargudunei arau honetako eginbeharrak bete ditzaten eskatzea, kargua hasi eta amaitzean.
- Jardueren eta ondasun eta interesen erregistroak kudeatzea, bai eta datuak eta dokumentuak gordetzeko ardura hartzea ere.
- Gai honi lotutako antzeko funtzioak betetzen dituzten Eusko Jaurlaritzako edo Foru Aldundietako erakunde edo organoekin parte hartzea.
- Honako hauek argitaratzea gardentasunari buruzko web atarian: ondasun eta jardueri buruzko urteko aitorpenak, bateragarritasunari buruzko ebazpenak eta Foru goi-kargudunek jarduera pribatuak egin ditzaten baimentzen duten ebazpenak.
- Foru goi-kargudunen katalogoa kudeatu eta gaurkotzea.
- Foru goi-kargudunaren eginbeharrak betetzeko mailaren berri ematea Aldundiari eta Batzar Nagusiei, 6 hilabetean (2 txosten urtean).



Txostenak honako informazio hau jaso beharko du:

- aitorpenak aurkezteko betebeharra duten Foru goi-kargudunen kopurua eta jasotako aitorpenak,
 - kargua uzteagatik aurkeztutako aitorpenak,
 - eginbeharrak epearen barruan ez betetzeagatiko errekerimenduen kopurua,
 - hasitako zehapen-prozedurak eta haien emaitza.
- Honako hauen berri ematea diputatu nagusiari, urte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan:
- aurreko urtean aurkeztutako aitorpen motak eta aitorpenen kopurua
 - aitorpena egiteko eginbeharra bete ez duten Foru goi-kargudunen kopurua.
- Gordetako jarduerak egitea, zehapen-prozedurari hasiera eman baino lehen.
- Zehapen-prozedura horren berri ematea edo prozedura horretaz arduratzea.



Betetze bermeak





Arau-hausteak		
Oso larriak	Larriak	Txikiak
<p>Honako hauek betetzen ez badira:</p> <ul style="list-style-type: none">- Etikari eta gobernu onari buruzko printzipioak- Arau honetan eta beste arau edo lege batzuetan jasotako interes-gatazkei eta bateraezintasunei buruzko arauak- Datu faltsuak dituzten aitortpenak edo dokumentuak nahita aurkeztea- Parte ez hartzeko betebeharra- Ondareei eta sozietateetan parte hartzeari lotutako mugapenak- Bankuekin egindako kontratazioei lotutako eginbeharrak	<ul style="list-style-type: none">- Jardueren eta ondasunen aitortpena erregistroetan ez aurkeztea, hala eskatzen bada- Aurkeztu beharreko datuak eta dokumentuak nahita ez ematea	<ul style="list-style-type: none">- Jardueren eta ondasun eta interesen aitortpena epean ez aurkeztea, edo akatsak epez kanpo konpontzea, betiere akats horiek konpondu daitezzen eskatu bada
<p>Delitutzat hartu litezkeen arau-hausteen berri emango zaio Fiskaltzari</p>		



Zehapenak		
Oso larriak	Larriak	Txikiak
- Ebazpena BAOean argitaratuko dira - Neurri osagarriak: A) Foru goi-kargudun izateari uztea B) Jasotako kopuruak bueltatzea		Kargu-hartzea
- Gaizki jasotako kopuruak bueltatzea (% 10eko errenergua ezarriko da, jakinarazpena egin eta hurrengo hilabetean bueltatzen ez badira kopuru horiek)	- Gaizki jasotako kopuruak bueltatzea (% 5eko errenergua ezarriko da, jakinarazpena egin eta hurrengo hilabetean bueltatzen ez badira kopuru horiek)	
- Foru kargurik ez betetzea edo Foru Aldundiaren ordezkaria ez izatea, 5-10 urtez	- Foru kargurik ez betetzea edo Foru Aldundiaren ordezkaria ez izatea, 1-5 urtez	
Foru goi-kargudun izateari utzi eta gero, konpentsazioaren bat jasotzeko eskubidea galduko du		
Nork ezarriko ditu zehapenak?		
Oso larriak	Larriak	Txikiak
- Diputatua ez den Foru goi-kargudun batek arau hausten baditu: Foru Aldundiak - Foru Aldundiko kide batek arauak hausten baditu: diputatu nagusiak, Aldundiari aldeztu aurretik jakinarazita - Diputatu nagusiak arauak hausten baditu: 3/1987 Foru Arauari jarraikiz		- Diputatua ez den Foru goi-kargudun batek arauak hausten baditu: Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako diputatuak, edo arlo horretan eskumenak dituenak